



Arabako Argazkilaritza
Elkartea Sociedad
Fotográfica Alavesa



Amarica

PRENTSA OHARRA

VIPHOTO-K DEIALDIA EGIN DU BERRITASUNEZ BETERIKO VI. AZOKAN PARTE HARTZEKO

Arabako Argazkilaritza Elkarreak eta Amarika aretoak antolatutako VIPHOTOren VI. azokarako deialdia ireki da. Aurtengo azokan Iñaki Domingo artista bisualaren eta komisarioaren laguntza garrantzitsua izango da. Azoka parte hartu nahi duten argazkilari eta artista bisual orori irekita dago. Lanak aurkezteko epea 2017ko uztailaren 10ean hasi eta urriaren 1ean amaituko da.

Ekimen honen helburua da galeriek ordezkatzeko ez dituzten argazkilari eta artista bisualei beharrezko aukera eta laguntza ematea, beren lanak erakutsi eta saltzea izan dezaten, bai eta argazkiari artelan balioa ematea eta argazki kontsumoa sustatzea ere.

Azokan zehar arloko profesionalak elkarlan sareak sortzea errazten da. Aurtengo azokan funtsezko iritzi zaio alderdi horri, eta aditu talde (artistak, komisarioak, irakasleak, arte-kritikariak, bildumazaleak...) garrantzitsua izango dugu. Horiek denak entzute handikoak dira, eta azokan zehar antolatzen diren jardueretan parte hartzeaz gain, ikustaldi eta aholkularitza saioak ere egingo dituzte parte hartzaileekin.

Besteak beste, hauek izango ditugu: **Iñaki Domingo, Carmen Dalmau, Horacio Fernández, Gabriela Cendoya, Juan Valbuena, David Jiménez, eta Jon Gorospe.** (Horien biografiak bidaltzen dira honekin batera)

Ildo horretan, hiru profesional ezagunek (**Iñaki Domingo, Jon Uriarte eta Roberto Villalón**) osatzen dute hauta-mahaia, eta horiek aukeratuko dituzte Viphoto 2017ko hamabi parte-hartzaileak. (Horien biografiak bidaltzen dira honekin batera)

Nabarmendu beharreko azokako beste berritasun bat **Argazki-liburua** da. Azken aldi honetan *Argazki-liburuak* hartzen ari diren garrantzia dela eta, Viphotok ezinbesteko irizten dio hari tartetxo bat egiteari eta, ondorioz, hainbat formatutan egongo da ikusgai.

Hainbat banaketa-etxe gonbidatu dira eta, azkenik, **La Ruedak** hartuko du parte azokan, zeinetan arte garaikidea langai duten egile eta argitaletxeen hamaikatxo argitalpen jarriko diren salgai, batez ere, argazkiak eta argazki-liburuak.

Berritasunekin jarraituz, aurreko jardueri bi lantegi gehitzen zaizkie:

- ***Familia eta haren kontakizuna***

Lantegiak, aita-ama eta seme-alabentzakoak, familia-albumari buruz hausnartzea proposatzen du.

Familia-albumaren jatorriari buruzko sarrera laburra egingo da eta, ondoren, gonbidatu egingo dira parte-hartzaileak familia-album bat, ohi ez bezalakoa, sortzera.

Iñaki Domingok izango du horren ardura.

Noiz: abenduaren 1ean eta 2an.

- ***Book Jockey saioa.***

Argazki-liburuak erakusteko eta gozatzeko era berri eta esperimentalak da Book Jockey. Book Jockey saio batek ekitaldi garaikideari buruzko ikuspegi pertsonala eskaintzen digu, eta oraingo honetan Gabriela Cendoyaren sorta itzelaren zenbait lan hautatu izango ditugu ikusgai. Sorta itzel horrek 1.400 lan ditu eta San Telmo Museoa gordetzen du, egun.

Gabriela Cendoyak egina

Noiz: abenduaren 2an

Aurreko urteetan bezala bi mahai-inguru antolatuko dira eta haietan argazkigintza garaikidearen egoerari eragiten dioten hainbat alderdi jorratuko dira eta, horretarako, mahai-inguru bakoitzean hiru hizlari izango dira, denak aditu handiak jorratuko den gaian. Jon Gorospek egingo ditu moderatzaile lanak mahai-inguru horietan.

- ***Argazki-liburuaren garrantzia***

Hizlariak: **Gabriela Cendoya, David Jiménez** eta **Juan Valbuena.**

Noiz: abenduaren 2an

- ***Argazkigintza orain***

Hizlariak: **Iñaki Domingo, Carmen Dalmau** eta **Horacio Fernández**

Noiz: abenduaren 3an

Azkenik, **Marta C. Dehesak**, egile eta irudi grafiko eskubideetan aditua, hitzaldi bat emango du ***argazkigintzari, sare sozialei eta egile eskubideei buruz.***

Noiz: abenduaren 3an.

Azokarekin batera eta hari lagunduz Arte eta Diseinu Goi Eskolako ikasleen argazki erakusketa bat egingo da. Erakusketa hori Gasteizko Espazioa aretoan egingo da, abenduan zehar.

Tokia: **Amarika aretoa**

Noiz: 2017ko abenduaren 1etik 3ra

[Cómo participar](#)

WEB orria: www.viphoto.es

Helbide elektronikoa: viphoto@viphoto.es / inscripcion@viphoto.es

Harremanetarako pertsona:

Pilar G.Barco: 660632723

ESKER ONA

ANTOLATZAILEA: Arabako Argazkilaritza Elkartea eta Amarika aretoa.

Komisarioa: Iñaki Domingo

BABESLEAK: Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Vital Fundazioa eta Arabako Argazkilaritza Elkartea

LAGUNTZAILEAK: Abba Jazz hotela, Ondalán upeltegia, Diario Noticias de Álava egunkaria, Radio Vitoria irratia, GasteizOn, Dato hotela, San Martín, Arte eta Diseinu Eskola, ¶Espazioa

Viphot2017ko komisarioen biografia laburra

Hautaketa batzordea

Iñaki Domingo

Madril, 1978.

Komisarioa eta artista bisuala, abstrakzioa oinarri irudiak sortzeko prozesuetan pertzepzio edo hautemate eta materia auziak jorratzen dituena.

Besteak beste, sari hauek jaso ditu: Injuve argazki saria, Nophotoko kide den aldetik PhotoEspaña errebelazio saria eta argitalpen diseinuko DA&D saria “*Ser Sangre*” liburuarengatik. Bekak jaso ditu, bai Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren Artista Gazteentzako Egonaldi Programan parte hartzeko bai World Press Photo Foundation-en Joop Swart Masterclass-en parte hartzeko. Hainbat erakusketa egin ditu, nola bakarrik hala beste batzuekin batera; besteak beste, Hubei Museum of Art-en, Lodz Art Center-en, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n, Lázaro Galdiano fundazioan, Tabacalera Madrid-en eta Matadero Madrid-en erakutsi ditu bere lanak.

Ivorypress-eko argitalpen saileko arduradun izan da, bai eta, bertan, C Photo aldizkariaren editore ere. Egun 30y3.com blogaren koeditore da eta RM Argitaletxean sormen editorea. Komisarioa izan da nazioarteko zenbait erakusketetan, hala nola, Krakow Photomoth 2013an eta PhotoEspaña 2014an, eta 2014az geroztik Lanzadera proiektuko egoitza komisarioa da, CentroCentron.

IED eta Lens-eko irakasle titularra da, non argazkigintzari buruzko zenbait gai ematen dituen eta master proiektuetako tutore den; halaber, zenbait eskola eta unibertsitatetan lantegiak eta hitzaldiak eman ohi ditu. Horrez gain, Houston PhotoFest Moscow, Descubrimientos PhotoEspaña eta antzeko deialdietan portfolioak ikuskatu ditu, eta epaimahai izan da Fotopres La Caixa, Joven Talento FNAC, Fotolibro Iberoamericano Editorial RM lehiaketan eta antzekoetan.

Jon Uriarte

Hondarribia (Gipuzkoa), 1980

Bartzelonan egin zituen bere argazkigintza ikasketak, Kataluniako Institut d’Estudis Fotogràfics delakoan; ondoren, Kultura Ministerioaren beka batekin, New Yorken, International Center of Photography delakoan, eta Madrilen, Europar Unibertsitatean (& PHotoEspaña), non Gipuzkoako Foru Aldundiaren beka batekin “Teoria eta proiektu artistikoetako” masterra egin zuen.

Haren lana nola estatuko hala nazioarteko hainbat komunikabidetan argitaratu da, hala nola, Spiegel, La Repubblica, El País eta The New York Times Magazinen. Era berean, hala bakarrik nola beste batzuekin batera, besteak beste, Getxophoto, Sarajevo Winter Festival eta PhotoEspañan erakutsi ditu bere lanak, bai eta hainbat artegunetan ere, hala nola, Madrileko La Casa Encendidan, Donostiako Koldo Mitxelenan, New Yorkeko Studio 304n, Berlingo HBCn, Madrilgo Círculo de Bellas Artesen eta Bartzelonako Sala d’Art Joven. LENSEn, Oinarrizko Proiektuetako Garapen Masterreko tutore taldeko kide da; EFTIn, argazkigintza garaikidearen historia ematen du eta argazkigintzako graduaren hirugarren mailan, proiektu irakaslea da. Horiez guztiez gain, IDEPen argazkigintza aurreratuko graduondoa zuzentzen du.

Egun, Bartzelonan bizi eta lan egiten du, non Bartzelonako Photobook Cluba sortu zuen, Widephoto komisariotza eta jarduera plataformako kide den eta Foto Colecania Fundazioak bultzatutako DONE ekimeneko zuzendari artistikoa den. Ekimen horrek argazkigintza digitalak eta Internetek argazkigintzan duen eragina aztertzen du.

Roberto Villalón Vara

Kazetari izan nahi izan nuen eta prentsako argazkilari izaten bukatu nuen. Gero argazkilari hobea izan nahi

izan nuen eta, hura lortzeko, onenekin ikasi nuen, baina kazetari izaten bukatu nuen. Eta anabasa horren erdian, **Clavoardiendo** argazki aldizkaria sortu nuen, non denetarik egin nezakeen, umorea, pasioa, lan handia eta zoramen apur bat lagun.

Mahai-ingurua: "ARGAZKI-LIBURUAREN garrantzia"

Gabriela Cendoya

Donostia, 1958

Bordelen, unibertsitateko lehen urteetan, Artearen Historia ikasten ari nintzela, hasi nintzen liburuak erosten. Margolaritza garaikideari buruzko liburuak, arte liburuak oro har; hasiera batean, gutxi ziren argazkigintzari buruzkoak. Komiki ugari ere erosten nituen. Oso da eklektikoa nire liburutegia: Apurka-apurka, ordea, gero eta gehiago izan dira argazki liburuak.

Azken zortzi urteetan ez dut besterik erosi; erosi eta erosi argazki liburuak... dagoeneko 1.300 edo 1.400 baino gehiago izango dira. Nire erosketa horiek eta argazki-liburuek Espainian izan duten gorakada bat etorri dira, nahiz eta, niri dagokidanez behintzat, ez den jarduera eskusiboa.

Nirea amateur aske eta eklektiko baten bilduma da, kanpotik sortua, bai geografiari bai buruari gagozkiola. Bada urtebete baino gehiago argazki-liburuei buruzko blog bat dudala.

Juan Valbuena

Madril, 1973.

NOPHOTO Agentziako argazkilari sortzailea, PHREE argitaletxeko zuzendaria eta EFTI Argazkigintza Garaikideko Nazioarteko Masterreko irakaslea. Haren proiektuek zerikusia dute bidaiekin, lurraldearekin eta memoriarekin eta beste diziplina batzuek kutsatuta ageri dira, hala nola, edizioak, bideoak eta literaturak kutsatuta.

Oraintxe bertan interes berezia du gizakiaren eta argazkigintzaren artean dagoen harremanari buruzko istorioak kontatzeko eta dokumentalen narrazio mugak ikertzeko.

David Jiménez

Alcalá de Guadaira (Sevilla), 1970

UCMko Arte Ederretako lizentziaduna. Badira 25 urte argazkigintza alorreko proiektuetan diharduela. Haren lanak, hotz, liburuak, erakusketak eta ikusizko proiektioak, nola Espainiako hala atzerriko hainbat tokitan erakutsi dira, besteak beste, Rotterdamgo Nederlands Foto Instituut-en, Arlesko argazki jaialdian, Staffordshireko Unibertsitatean, Seúl Photo jaialdian, Bogotako Kolonbiako Liburutegi Nazionalean, eta Txinako Changjiang International Photography and Video Biennale-n.

PhotoEspaña 99ko argazkilari errebelazio saria jaso zuen eta, 2008an, Madrilgo Hiribilduko Arteen Saria. 2016-17an Erroman egon zen, Espainiako Errege Akademiaren egoitzan. Bost liburu monografiko argitaratu ditu; haien artean "Infinito" (2000), azken hamarkadetako Espainiako argazki liburu nabarmenatariko bat, eta "Versus" (2014) nabarmendu behar. Haren lana Espainiako hamaikatxo bilduma publiko eta pribatutan ordezkaturik dago, hala nola eta besteak beste, MAPFRE Fundazioarenean, MACUFen eta DKVren Arte bilduman. Ohi du, estatuan zein nazioartean, lantegiak eta hitzaldiak ematea.

Mahai-ingurua: "Argazkigintza orain"

Carmen Dalmau Bejarano

Artearen Historiako eta Aro Berriko Historiako eta Historia Garaikideko lizentziaduna. Galeria Ceroren zuzendaria. Galeria Cero egungo argazkigintzan espezializatuta dago. EFTI argazkigintza masterreko Arte Historiako eta Estetikako irakaslea.

Komisario independentea erakusketetan. Arte kritikaria. "antevuestrosojos" argazkilaritza blogaren egilea.

Iñaki Domingo

Madril, 1978.

Komisarioa eta artista bisuala, abstrakzioa oinarri irudiak sortzeko prozesuetan pertzepzio edo hautemate eta materia auziak jorratzen dituena.

Besteak beste, sari hauek jaso ditu: Injuve argazki saria, Nophotoko kide den aldetik PhotoEspaña errebelazio saria eta argitalpen diseinuko DA&D saria, "Ser Sangre" liburuarengatik. Bekak jaso ditu, bai Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren Artista Gazteentzako Egonaldi Programan parte hartzeko bai World Press Photo Foundation-en Joop Swart Masterclass-en parte hartzeko. Hainbat erakusketa egin ditu, nola bakarrik hala beste batzuekin batera; besteak beste, Hubei Museum of Art-en, Lodz Art Center-en, Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía-n, Lázaro Galdiano Fundazioan, Tabacalera Madrid-en eta Matadero Madrid-en erakutsi ditu bere lanak.

Ivorypress-eko argitalpen saileko arduradun izan da, bai eta, bertan, C Photo aldizkariaren argitaratzaile ere. Egun 30y3.com blogaren koeditore da eta RM Argitaletxean sormen editorea. Komisarioa izan da nazioarteko zenbait erakusketetan, hala nola, Krakow Photomoth 2013an eta PhotoEspaña 2014an, eta 2014az geroztik Lanzadera proiektuko egoitza komisarioa da, CentroCentron.

IED eta Lens-eko irakasle titularra da, non argazkigintzari buruzko zenbait gai ematen dituen eta master proiektuetako tutore den; halaber, zenbait eskola eta unibertsitatetan lantegiak eta hitzaldiak eman ohi ditu. Horrez gain, Houston PhotoFest Moscow, Descubrimientos PhotoEspaña eta antzeko deialdietan portfolioak ikuskatu ditu, eta epaimahai izan da Fotopres La Caixa, Joven Talento FNAC, Fotolibro Iberoamericano Editorial RM lehiaketan eta antzekoetan.

Horacio Fernández

Argazkigintzaren historialaria, komisarioa erakusketetan eta hainbat libururen egile, besteak beste, bi hauena: "Fotografía Pública" (1999) eta "El fotolibro latinoamericano" (2011). 1988az geroztik, argazkigintzaren historia irakaslea da Cuencako Arte Ederren fakultatean. 2004tik 2006ra PhotoEspañako zaindari nagusi izan zen.

Mahai-inguruen moderatzaile

Jon Gorospe

Gasteiz, 1986

Ekoi zle da, sortzaile, baina ikuspuntu teoriko batetik ere ulertu nahi du lana. Ikasgai artistikoetako unibertsitate graduduna, Euskal Herriko EASDen eta Lituaniako Vilnius Faculty Of Arts-en espezializatua diseinu grafikoan. Maltan bukatu zuen bere proiektua.

Haren lanak gorai pamen hauek merezi izan ditu: *Argazkigintza Garaikidearen Galizia Saria*, *Oihanederreko Ekoizpen Beka* eta *Albarracingo Argazkigintza eta Kazetaritza Beka*. Bai eta *Periscopio* sariketan ere, Blanca

Soto Arte galeriaren “*Hombre Fantástico*” eta “*Aquí y Ahora*” direlakoetan parte hartuz. Zenbait herrialde, erakunde publiko eta galeria pribatutan erakutsi ditu bere lanak.

Lantegiaren edukia: “FAMILIA ETA HAREN KONTAKIZUNA”

Iñaki Domingo

Aita-ama eta seme-alabentzako lantegi horrek proposatzen du familia albumei buruz hausnartzea, barne oroitzapenen edukiontzi den aldetik, eta auzitan jartzen du zergatik albumek irribarre izoztuen bilduma izan behar ohi duten. Zergatik albumetan ez da islatzen tristura, asperdura, sumina, errutina?

Familia-albumaren jatorriari buruzko sarrera laburra egingo da eta, ondoren, gonbidatu egingo dira parte-hartzaileak familia-album bat, ohi ez bezalako, sortzera. Parte hartzaileek beren familia argazkiak ekarriko dituzte, gainerako parte hartzaileekin nahastuko dituzte eta, denek batera, narrazio bat sortuko dute, parte hartzaileek ekarritako irudi guztietan oinarritutako fikziozko familia handi baten erakusketa.